«ARARTEKOAREN ITZULPEN ZERBITZUA» KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

LEHENENGO KLAUSULA. XEDEA.

Kontratu honen xedea da Arartekoaren itzulpen-zerbitzua emango duen enpresa bat hautatzea.

BIGARREN KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEAREN DESKRIBAPENA.

2.1. Itzuli beharreko agiriak.

1. sorta:

Besteak beste, honako agiri hauek itzuli beharko dira, sakontzeko asmorik gabe:

- Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena eta biak laburtzen dituen aldizkaria.
- Txosten bereziak eta azterlan monografikoak.
- Arartekoaren uda ikastaroetako eta horien antzeko jardunaldietako testu-bildumak, "Giza eskubideei buruzko jardunaldiak" bildumaren barruan.
- Ebazpen eta gomendio orokorrak.
- Kexa-espedienteen ohiko tramitazioan sortzen diren agiriak.
- Kontratazioarekin zerikusia duten jardueretan sortzen diren agiriak.
- Aurrekontua eta kontabilitatea kudeatzearekin zerikusia duten jardueretan sortutako agiriak.
- Langileak kudeatzearekin zerikusia duten jardueretan sortzen diren agiriak.
- Dibulgazio-testuak: prentsa-oharrak eta gizarte-sarekoak.
- Erakundearen barruko jakinarazpenetarako eta aplikazioetarako testuak.
- Web orrialderako edukiak.

2. sorta:

Besteak beste, honako agiri hauek itzuli beharko dira, sakontzeko asmorik gabe:

- Europako eta nazioarteko erakundeek egindako agiriak, Arartekoerakundeak berak edo eremu bereko beste erakunde batzuek eginak, erakundearen Nazioarteko eta Europako Gaietarako Bulegoak interesgarritzat jotzen badu agiri horiek zenbait hedabideren bitartez zabaltzea.

2.2. Egin beharreko itzulpen motak.

1. sorta:

Ohiko itzulpen-lana: besterik adierazi ezean, kategoria honetakoak dira aurreko atalean zerrendatutako agiri guztiak. Honelako itzulpenetan, enpresa esleipendunak egunero **5.000 hitz** itzultzeko ahalmena bermatu beharko du. Hala ere, Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena, Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena eta biak laburtzen dituen aldizkaria itzuli behar diren hilabeteetan (urtarriletik martxora) enpresa esleipendunak **10.000 hitz** itzultzeko ahalmena ziurtatu beharko du.

Presako itzulpen-lana: eskatutako testuaren itzulpena gehienez ere **24 orduko** epean egin beharko da, itzulpena eskatzen den unetik zenbatzen hasita. Halako testuek ez dituzte gainditukо **4 orrialde**, **400 hitz** orrialde bakoitzeko.

2. sorta:

Ohiko itzulpen-lana: ohiko itzulpen-lana bakarrik hartu da aintzat. Horren haritik, enpresa esleipendunak egunero **5.000 hitz** itzultzeko ahalmena bermatu beharko du.

2.3. Itzulpenen kopurua.

Itzulpen-zerbitzuaren egungo kontratuaren urteko fakturazioa kontuan hartuta, itzulpenen urteko bolumen zenbatetsia honako hau da:

1. sorta	1.650.000 hitz/urteko
2. sorta	60.000 hitz/urteko

HIRUGARREN KLAUSULA. ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

3.1. Testuak bidaltzeko eta jasotzeko bidea.

Salbuespenak salbuespen, posta elektronikoz bidaliko dira itzuli, berraztertu edo zuzendu beharreko agiriak, eta halaxe jasoko dira itzulitako testuak ere. Oso agiri luzeak baldin badira, elektronikoki bidaltzeko beste bide batzuk erabiliko dira, bereziki tamaina handiko artxibok bidaltzeko erabiltzen direnak.

3.2. Testuen formatua.

Itzuli beharreko agiriak batez ere Word formatuan bidaliko dira. Word (Windows 10) testu formatua erabiliko da. Hala ere, beste formatu batzuk ere erabili ahal izango dira (PDF, Excel, Power Point eta HTLM), ezin badira Word formatura bihurtu.

3.3. Ohartarazpenak.

Testuaren zati bat itzulita duten dokumentuen kasuan, dokumentuak bidaliko dira, dagozkien zatiak erantsita eta kolore bereizian nabarmenduta, enpresa esleipendunak horren berri izan dezan.

Era berean, beste kolore batean nabarmenduko dira itzuli beharrik ez duten zatiak.

3.4. Itzulpenen kalitatea.

1. sorta:

Enpresa esleipendunak beti errespetatu beharko ditu Euskaltzaindiak euskararako eta Espainiako Errege Akademiak gaztelaniarako ezartzen dituzten alderdi linguistikoak, gramatikalak, estilistikoak, lexikalak eta terminologikoak, itzulpenen kalitatea une oro bermatzeko.

2. sorta:

Enpresa esleipendunak xede-hizkuntzan oro har onartuta dauden hitz tekniko eta espezializatuak erabili beharko ditu itzulpenetan. Horrela, xede-hizkuntzan lengoaia hori erabiltzen duten erakundeen agiri ofizialen eta argitalpenen bitartez orientatu beharko du (adibidez, gaztelaniara egin beharreko itzulpenetan, dagokion lengoaia baliatzen duten Nazio Batuen gaztelaniazko agiri eta argitalpen ofizialen bidez orientatu beharko dute). Baldin eta, jatorrizko hizkuntzan idatzitako testuan, xede-hizkuntzan itzulpen ofiziala duten beste agiri edo argitalpen batzuetako pasarteak hitzez hitz aipatzen badira, eskura dagoen itzulpen ofiziala hartuko da. 1. loteko itzulpenenetan bezalaxe, gaztelania xede-hizkuntza duten itzulpenetan, Espainiako Errege Akademiak ezarritako alderdi linguistikoak, gramatikalak, estilistikoak, lexikalak eta terminologikoak errespetatu beharko dira, hitz teknikoez oro har onartzen den erabilera espezializatua islatzen ez dutenean izan ezik.

1. eta 2. sorta:

Aipamen eta erreferentzia bibliografikoak egitean, Arartekoak onartutako berariazko arauak bete beharko dira. Arau horiek itzulpen-lanak esleitzen zaizkion enpresari eskuratuko zaizkio, eta hark bete egin beharko ditu testuak itzultzean.

Itzulitako testuetan sartuko dira jatorrizko agiriek edo testuek dauzkaten estekak (URL) (adibidez, urteko txostenean itzulitako testuak kontsulta daitezke, erakundearen web orrian).

Presakoa izateak ez du justifikatuko itzulpen baten kalitate txarra.

Lanek ez dute akats mekanografikorik, tipografikorik, linguistikorik edo estilistikorik edo formatuzkorik izango.

Orobat, itzulpenek ulergarriak izan beharko dute, itzulpen-itxurarik izan gabe, eta zehatz adierazi beharko dituzte jatorrizko testuen edukia eta tonua.

Enpresa esleipendunak bere gain hartutako itzulpenak berraztertu egin beharko dira Arartekora bidali baino lehenago.

3.5. Entregatzeko epeak.

Presako itzulpenak gehienez ere 24 ordutan egin beharko dira.

Gainontzeko kasuetan, entregatzeko epeak kontratua gauzatzeko arduradunarekin adostuko dira, enpresa esleipendunak edo enpresa esleipendunek bermatu du(t)en itzulpen kopurua kontuan hartuta, agiri honen 2.2. puntuan aurreikusitako gutxienezko kopuruak ziurtatu ondoren.

LAUGARREN KLAUSULA. ZERBITZUA EGINGO DUEN LANTALDEA.

Enpresa esleipendunak zerbitzua egoki egiteko behar beste itzultzaile jarriko ditu kontratu hau betetzeko. Era berean, enpresa esleipendunak berraztertzaile-zuzentzaile bat izendatuko du. Emandako itzulpenen arduraduna izango da, eta erakundearekin koordinazio- eta bitartekaritza-lanak ere egingo ditu.

BOSGARREN KLAUSULA. ZERBITZUEN ORDAINKETAK

Itzultzeko ematen den jatorrizko agiri bakoitzak zenbat hitz dituen kontuan hartuta ordainduko da. Egindako lana Arartekoak ontzat jotzen duenean egingo da ordainketa. Ontzat jotakoa dela ulertuko da lana entregatu ondoko 15 lanegunetan kontrakorik adierazten ez bada.

Ez dira fakturatuko lehendik egindako itzulpenen edo Ararteko erakundeak emandako ereduen kopia huts diren testuak edo testu-zatiak.

SEIGARREN KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEA.

6.1. Zuzentzea.

Ararteko erakundearen ustez, itzulpenek eska daitekeen gutxienezko kalitatea ez badute, zuzen ditzala eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari, kostu gehigarririk gabe.

6.2. Itzultzaileak identifikatzea eta hautatzea.

Ararteko erakundeak itzulpen bakoitzean parte hartu du(t)en itzultzaile(ar)en izen-abizenak eskatu ahal izango dizkio enpresa esleipendunari. Noizean behin, emandako lanetan itzultzaile zehatz batek edo batzuek esku har dezaten eskatu ahal izango du, haien eskarmentua eta itzuli beharreko testuaren ezaugarriak kontuan hartuta.